

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rikardo Garcia Benguria

*Bermeo,
Bizkaia
(1919-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1919. urtean jaio zen [Intxausti](#) kaleko 25. zenbakian. Gurasoak ere bermeotarrak zituen: ama baserritarra eta aita kaletarra. Umetan eskola nazionaletara joan zen. Gazterik hasi zen itsasoko lanetan, eta urte luzez patroizandakoa da. Gerra hasi zenean, Bermeo ebakuatzerakoan Bilboko portura joan ziren bi hilabeterako, bertan ere arrantzan aritzeko. Bilbo hartu ostean, berriro ere etxera bueltatu ziren eta gero, 18 urterekin faxistekin frontera joatea egokitu zitzaion. "Cuarta división de Navarra"ko Flandes batailoian ibili zen borrokan. Aragoiko frontean zegoela zauritua izan zen eta 2 hilabetez etxean egon ostean, Madrileko frontera joan zen, metrailadoreen batailoira. Madrilen zegoela bukatu zen gerra. Avilara joan ziren atsedeen hartzera eta Alemania beste gerra bat prestatzen zebilela-eta, Frantziak Espainia erasotuko zuelakoan, Pirinio aldera joan ziren hurrengo gerra noiz hasi zain. Tarte horretan, Ebroko batailan 7 kidetik bizirik irtendako bakarra da Rikardo. Herrira bueltatzerakoan, arrantzalea zenez, itsas armadako "Alcala Galiano" errepublikazaleen itsasontzian ibili zen urte eta erdiz. Faxistekin borrokan ibili zela aipatzerakoan, biziraupenean baino ez zutela pentsatzen dio. Oso ondo gogoratzen zituen garai haiek.

Zintak

BRM-009

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-06-30
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

BRM-010

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-06-30
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gerra hasi zenean, itsasoan

- **Erref:** BRM-009/006
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

10 egunez atunetan joanda zeudela, ikatz bila joan behar izan zuten Bilbora; eta Bilbora sartzen ari zirela, milizianoekin egin zuten topo. Orduko kontuak aipatzen ditu.

2. Ezin Bermeotik irten

- **Erref:** BRM-009/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Bilbora heldu eta gerra hasi zela jakin zutenean, Bermeora etorri ziren. Portuan zain zeudenak arduratuta zeuden, ez baitzekiten ezer haiei buruz. Atzera itsasora ez irteteko agindua izan zuten, baina beraiek lan egin beharra zuten.

3. Beldur handia zegoen Bermeon

- **Erref:** BRM-009/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Faxistak sartzen hasi zirenean, beldur handia egon zen, mairuak zetozela-eta; etxean egon behar zen, inora joan barik. Donostiatik hasita, kostako herriak hartzen hasi ziren eta beldurra areagotzen zihoan.

4. Bermeotik ebakuatuta

- **Erref:** BRM-009/010
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Nazionalak Bermeora sartu zirenean, Bilbora joan ziren ebakuatuta, eta bertako portuan egon ziren pare bat hilabeteen. Inguruko mendietan, Solluben-eta, borroka handiak egon ziren. Bilbo hartu zutenean, herrira bueltatzeko esan zieten.

5. 'Cuarta División de Navarra'ko Flandes batailoian

- **Erref:** BRM-009/011
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

<p>Mairuek mutiko gazteak, La Quinta del Biber&oaacute;n, mendira bidali zituzten, Rikardo bera ere tartean. Bilbotik Gasteizera eraman zituzten tropak osatzeko; handik, hainbat mugatara joan ziren. Bera Cuarta Divisi&oaacute;n de Navarrako Flandes batailoian ibili zen.</p>

6. Batailan I

- **Erref:** BRM-009/012
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:22:56. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Ebroko eta Aragoiko batailako gertakizunak kontatzen ditu.

7. Batailan II

- **Erref:** BRM-009/013
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ebroko eta Aragoiko batailako gertakizunak kontatzen ditu.

8. Zauritutako laguna

- **Erref:** BRM-009/014
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Justo frontera bere lagun batekin batera joan zen, Julianegaz. Hildakoak baino ez ziren ikusten, errepublikanoak zein faxistak berezitu barik. Julian eta bera Sierra de Cabalen galdu ziren; eta, ikusi zuen hurrengoan, ez zuen ezagutu: ohatilan (kamillan) zegoen zaurituta.

9. Bata bestea hiltzen

- **Erref:** BRM-009/015
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Borroka gero eta gogorragoa zen. Kataluniatik eta Errusiatik etorritako armamentua zegoen. Batak bestea hiltzen zuen, bestea nor zen jakin barik; ez zegoen beste egitekorik. Bera ere azkenean zauritu egin zuten.

10. Madrilgo frontean I

- **Erref:** BRM-009/016
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Frontean zauritu ostean, etxean egon zen bi hilabetez. Kuartelera bueltatu zenean Madrilgo frontera bidali zuten. Bertan ere bermeotarrak aurkitu zituen, lehenago langile-batailloietan preso egondakoak. Francoren

aldekoak Madrilera hurbiltzen ari ziren, fortifikazio onak zituzten bertan. Metrailadoreetako batailoi batera destinatu zuten Rikardo, baina ez zuten erasoaldirik izan. Handik abisua etorri zitzaion Madril okupatuko zutela; hori dela-eta, ikaratu egin ziren: errepublikako indarrek armamentu ona zuten Madrilen.</p>

11. Madrilgo frontean II

- **Erref:** BRM-009/017
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:43:43. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Aurreko pasartearen jarraipena. Talavera de la Reina (Toledo) herrian eta Tajo errekan gertatutakok kontatzen ditu.</p>

12. Madrilgo frontean III

- **Erref:** BRM-009/019
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:48:49. **Bukatu:** 00:50:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Aurreko pasartearen jarraipena. Tajo aldetik Ciudad Real aldera joan ziren, eta handik Avilara. Avilan zeudela bukatu zen gerra.</p>

13. Gerra bukatuta, Pirinioetara

- **Erref:** BRM-009/020
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:50:44. **Bukatu:** 00:53:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Espainiako Gerra Zibila amaitu zenean, Alemania eta Frantziaren artean beste gerra bat hasiko zelakoan, eta Frantziak Espainiari eraso egingo ziolakoan, Pirinioetara eraman zituzten.

14. Itsas armadako "Alcala Galiano"n

- **Erref:** BRM-009/022
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Francoren indarrek Valentzia eta Cartagena aldea hartu zutenean, itsasgizonak zirenek bertako armadara joan behar zutela esan zioten. Ferrolen itsas armadako "Alcala Galiano" errepublikazaleen itsasontzian sartu zen.

15. Armadako 'Crucero Canarias'en

- **Erref:** BRM-009/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Justo 25 hilabetez egon zen Espainiako armadako itsasontzi handienean Crucero Canariasen. Marinakoek izaten zituzten eginbeharrak azaltzen ditu. Bermeotar gehienak joaten ziren marinara. Crucero Canariasen 1.200 gizon zeuden.</p>

16. Sollubeko borroka

- **Erref:** BRM-009/025
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bermeon herrian bertan ez zen borrokarik egon. Italiarrak egon ziren Bermeon, eta inguruan gorriak. Solluben egon zen borroka gogorra. Portura kanoikada asko bota zituzten.

17. Ebroko batailan bera bakarrik bizirik bere taldean

- **Erref:** BRM-010/001
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Ebroko batailan zazpi laguneko taldetik Rikardo bakarrik geratu zen bizirik. Euskaldunak ziren gehienak. Francoren aldean borrokatu zuen Justok, behartuta.</p>

18. Guardia zibilek tiroz garbitu frontetik ihes egiterakoan

- **Erref:** BRM-010/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Bere taldeko bermeotar baten kasu tristea. Ebroko Batailan Kepa laguna larritu egin zen eta ihesari eman zion. Atzean zeuden guardia zibilek tiroz garbitu zuten.</p>

19. 180 gazte bermeotar hil ziren gerran

- **Erref:** BRM-010/003
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Bermeon 180 gazte inguru hil ziren gerran. Asko boluntarioak, errepublikaren alde borrokatu zutenak.

20. 112 bermeotar ito 1912ko galarrenan

- **Erref:** BRM-010/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1912an 112 bermeotar ito ziren galarrena baten eraginez. Banaka batzuk salbatu ziren. Espainiako Erregea etorri zen hiletatara. Orduan 'uriko ume' (hospiziokoak) asko ekarri zen Bermeora.

21. Batzokia eta UGT eta errepublikanoen egoitzak Bermeon

- **Erref:** BRM-010/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:18:13. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Batzokia zegoen Bermeon. Komunistek edo UGTkoek egoitza izan ei zuten txalet batean, Mundakara bidean. Kikunbera Etxearen jabea Arzadun Jenerala zen. Karlistak baziren baina ez zuten indarrik. Errepublikanoen egoitza Lamerako kafetegi batean zegoen. "Unión de Izquierda Republicana"koak ziren.

22. Jostailuak eurek egiten zituzten umetan

- **Erref:** BRM-010/025
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eurek egiten zituzten jostailuak: latorri zati batez batela; barrika bati kendutako uztaiatz jolas; 'birinbolie' izenekoa... Eta madariak eta sagarrak osten zituzten. Beste jolas batzuk: neskekin 'bale-baleka', 'txorro-morroka', pilotxuen (txirikilan).

23. Emakumeak goizeko seietan igerira

- **Erref:** BRM-010/027
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:35:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Paperez eta sokaz egiten zituzten baloiak. Portuan egiten zuten uger. Mahoizko prakekin. Emakumeak kamisoiak egiten zuten igeri, goizeko seietan Artzara joanda.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com